

GREBA FEMINISTA OROKORRA | 2023-11-30 | LESAKA

Hemen gauden guziak emakume baten sabeletik sortu ginen mundura. Haren magalean egin genituen lehen arnasak, lehen irriak, eta negarrak; haren eskutik, baita ere, lehen pausoak. Aitaren eskutik ere bai, beharbada. Baina beharbada ez.

Koxkortu ginenean haur eskolara eraman gintuzten. Edo eszedentzia edota lan murrizketa hartu zuen amak zaindu gintuen. Edo pentsio exkax bat zuen amatxik. Haur eskolako hezitzaile gehienak emakumeak ziren, eta horietako bakoitzak gu bezalako hainbat ume zituen zaintzapean: zaintzaile bakoitzarentzat haur gehiegi, seguru aski.

Heldutzen joan ahala etxeko lanak egiten ikasi genuen, pixkanaka. Lagunak zaintzen ikasi genuen, bikotekideak zaintzen. Amak segitu zuen gure sanferminetako arropa marroituak zuritzeko formula magikoak erabiltzen, amatxik igandeetako kroketak egiten; guk, beharbada, mahaia jartzen edo garbitzen ikasi genuen, edo pintxe lanak egiten, gehienez ere; gure anaiek eta aitek, beharbada, mahaian eserita segitzen zuten bitartean.

Urteak aitzinera joan ahala, gure ingurukoak zahartzen ikusi ditugu. Ikusi dugu, nola amatxik zaindu duen zaharragoa den ataxi. Gero amak bere ama. Eta, ezin izan duenean gehiago, nola utzi duen soldatapeko lana, edo eskatu duen laguntza gizarte zerbitzuetan, edo nola eraman duen, penaz, ama zahar etxera —horren kudeaketaz, seguru aski, bera arduratuta—. Edo nola kontratatu duen Nikaraguako emakume bat, egoiliar gisa, eguneko 22 ordutan, beharbada paperik ez duena, kontraturik gabe.

Zahar etxera bisitan joan garenean emakumeak ikusi ditugu gure herriko zaharrak zaintzen —beharbada ordura arte ikusi ere egin ez genituenak—. Haien ardurapean bertze ume edo ama batzuk dituzten emakumeak. Lanera nekatuta joan eta nekatuago itzultzen direnak, lan karga gogorrek eragindako zama psikologiko eta fisikoengatik.

Bizitza aitzinera doa pixkanaka, eta gu ere zainduko gaitu norbaitek, noizbait. Edo nahiko genuke zain gaitzaten, bederen. Elkarren menpekoak garelako, izanen garelako, eta izan behar dugulako gizakiok: bertze pertsonen eta naturaren menpekoak. Zaintzarik gabe ez dagoelako bizitzarik.

(...)

Ibilbide hori erakutsi nahi izan dugu gaur, Lesakako zaintza gune garrantzitsuenetatik pasatuta: haur eskola, eskola, ikastola, osasun etxea eta zahar etxea, tartean herriko etxe anitzetatik pasatuta. Adibide bat da irakurritako kontakizuna, eta ez du zertan beti hala izan, baina datuek egoera orokorra horrelakoa dela diote:

- Emakundek 2023an egindako ikerketa baten arabera, emakumeek egiten dituzte etxeko eta zaintza lanen %70. Orduka kontatuta, 2021ean, emakumeek batz bertz 9,5 ordu eman zituzten etxeko lanetan, adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzen; gizonek, berriz, egun 6,5 ordu.
- Hego Euskal Herrian 182.000 pertsona aritzen dira eskusiboki etxeko lan ez ordainduetan. Horietatik ia gehienak emakumeak dira, eta ez dute inolako prestazio edo soldatarik jasotzen.
- Bertzeren etxetan aritzen diren etxeko langileen artean, emakumeak dira %80, eta anitz migranteak dira. Horietatik %29 egoera administratibo irregularrean daude, eta %50ek ez dute babes ekonomiko aski. Interna edo egoiliar gisa lan egiten dutenen artean, aldiz, %95 dira emakume etorkinak —lautik bat egoera irregularrean dago, eta ia 24 ordu aritzen dira lanean—.

- Nafarroan dauden 71 zahar etxeetatik bi bakarrik dira arrontean publikoak, eta horietan ere emakumeak dira langile gehienak. Lan karga handiak izaten dituzte, eta lan baldintza eskasak.

- Emakume pentsiodunen artean, %47k 1.000 euro baino gutiago jasotzen dituzte hilabeteetan. Gizonen artean, berriz, %22,3 dira 1.000 eurotik beheiti jasotzen dutenak.

Azterketa sakonago bat eginen bagenu, seguru aski bertze datu aunitz ematen ahalko genituzke. Edo, aunitzetan, aski izaten da zaintza lanetan aritzen direnei eurei galdetzea —anitzetan ez baitiegu galdetu ere egiten—.

(...)

Honengatik guziagatik egin dute Euskal Herriko mugimendu feministak eta sindikatuak greba feminista orokorrerako deialdia: zaintza eskubidea denona dela aldarrikatzeko, eta horren ardura ere bai; eta, beraz, ardura hori partekatua izan behar dela aldarrikatzeko. Zaintza sistema publiko komunitario bat nahi dugu: alegia, instituzioek euren gain har dezatela zaintza duina bermatzea, zaintzaileei lan baldintza onak ematea, eta herritarrek ere modu kolektiboan egin ditzatela bertzelako zaintza lan komunitarioak, auzolanean —baina ez instituzioen hutsuneak betetzeko, baizik eta horiek osatzeko—.

Lesakan ere badugu zer aldarrikatua:

- Eskatu nahi dugu zahar etxea arrontean publiko bilakatu dadila (patronatuaren eta udaletxearen kudeaketatik haratago, Nafarroako Gobernuak kudeatuta, adibidez, eta enpresa pribatuen negoziatioetatik kanpo), eta zahar etxeko langileen lan baldintzak hobetu daitezela, bertzeak bertze ratioak erabiltzaileen beharrei egokituta; hartara, zaharrak hobeki zainduak izateko, eta langileen lan kargak arintzeko. Salatu nahi dugu gaur zahar etxeko langileek ezin izan dutela grebarik egin: izan ere, beti baitaude zerbitzu minimotan.

- Eskatu nahi dugu bertzeren etxetan aritzen diren etxeko langileen lan baldintzak hobetzea, horretarako Espainiako Atzerriartasun Legea eta egoiliarren (internen) erregimena desagerrarazita, eta lan erregimen orokorrean sartuta zein gutxieneko soldatetik goiti ordainduta.

- Eskatu nahi dugu haur eskoletako ratioak hobetzea, haurrek behar duten arreta izan dezaten.

- Eskatu nahi dugu etxez etxeko laguntza zerbitzua indartzea eta garatzea.

- Eskatu nahi dugu landa eremuan behar ditugun osasun zerbitzuak bermatzea, horretarako behar adina mediku, erizain eta pediatra jarrita, herritarrak ongi zainduak izan daitezen eta langileen lan kargak arindu daitezen.

- Eskatu nahi dugu denentzako pentsio duinak ezartzea: 1.080 euro gutienez.

- Eskatu nahi dugu gizonek ez zaintzearen pribilegioari uko egin diezaiotela, eta zaintza lanetan ardura har dezatela.

- Eta, bukatzeko, eskatu nahi dugu, oro har, zaintza lan guzien ikusgarritasuna eta aitortza.

Milesker gaur etorri zareten guziori, modu batera edo bertzera grebari babes eman diozuen guziei, eta oroitu gaur arratsaldean eskualdeko manifestazioa eginen dugula Elizondon, 18:00etan. Horretarako, 16:15ean kotxe karabana abiatuko dugu Lesakako zubitik.

Zaintza eskubide kolektiboa! Gora borroka feminista!